

TITULARRAK	ADADIERAZLEAK	Azken	Δ	Azken
		datua	Urte artekoa (%) *aurreko aldia	datuaren data
<ul style="list-style-type: none"> <li>Afiliatuen kopuruak -% 1,3 egin du behera hilerik hiler, eta 2.486 enplegu gutxiago daude hilabetean. Abuztuan 21.181 langabe erregistratu dira, aurreko hilean baino -% 1,3 gutxiago. Erregistratutako kontratuak -% 2,7 jaitsi dira urtetik urtera.</li> <li>Azalera handietako eta elikagaien kateetako salmentek urte arteko % 0,1eko igoera izan dute abuztuan.</li> <li>Bilboko jarduera turistikoak goranzko joerarekin jarraitzen du. Hotelak eta turismo-apartamentuek guztira 149.659 sarrera eta 313.423 ostatu-gau izan dituzte, 2024ko abuztuarekin konparatuta % 5,9ko eta % 5,3ko igoerak egon dira, hurrenez hurren.</li> <li>Bizkaiko BPGd-a % 2,2 handitu da urtetik urtera, eta % 0,5 hiru hilekotik hiru hilekora.</li> <li>Zerbitzuen sektorean, bigarren hiruhilekoaren amaieran, urtetik urterako % 1,5eko hazkundea izan dute salmentek. Sektoreko enplegua % 1,0 hazi da.</li> <li>Bilboko aireportuan 679.086 bidaiari erregistratu dira abuztuan, hau da, urte arteko % 1,5eko gorakada egon da, eta serieko daturik onena lortu da abuzturako.</li> <li>Bilboko Portuan 2,7 milioi tonako trafikoa erregistratu da abuztuan, hau da, % 11,1eko murrizketa egon da 2024ko hilabete berarekin alderatuta.</li> </ul>	<p><b>Lan-merkatua</b></p> <p><b>Afiliatutako biztanleak</b> (kop.) 192.922 - 1,3* Abu.</p> <p><b>Erregistratutako langabeak</b> (kop.) 21.181 2,1* Abu.</p> <p><b>Erregistratutako kontratuak</b> (kop.) 9.209 - 2,7 Abu.</p> <p><b>Merkataritza</b></p> <p><b>Saltoki handiak eta elikagaien kateak: salmenta-indizea</b> (2021. urtea = 100eko oinarria) 92,2 0,1 Abu.</p> <p><b>Turismoa (hotelak eta apartamentuak)</b></p> <p><b>Bidaiarien sarrera</b> (kop.) 149.659 5,9 Abu.</p> <p><b>Ostatu-gauak</b> (kop.) 313.423 5,3 Abu.</p> <p><b>Batez besteko egonaldia</b> (egunak) 2,09 -0,48 Abu.</p> <p><b>Ekonomia eta enpresa</b></p> <p><b>Bizkaiko BPGd</b> (2022. urtea=oinarria 100) 107,3 0,5* II 2025</p> <p><b>Zerbitzuak: salmenta-indizea</b> (2021. urtea = 100eko oinarria) 127,1 1,5 II 2025</p> <p><b>Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa</b> (€/m<sup>2</sup>) 4.753,5 15,0* II 2025</p> <p><b>Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa</b> (€/m<sup>2</sup>) 3.439,0 9,6* II 2025</p> <p><b>Etxebizitzaren alokairuaren prezioa</b> (€/hilabete) 933,9 - 1,2* IV 2024</p> <p><b>Garraioa</b></p> <p><b>Bidaiarien aireko garraioa</b> (kop.) 679.086 1,5 Abu.</p> <p><b>Salgaien itsas garraioa</b> (milioi tona) 2,7 11,1 Abu.</p>			

DATU BAT

Urte arteko % 2,2

Bizkaiko BPGd

## LAN-MERKATUA

### Erregistratutako langabezia

Abuztuan 426 langabe gehiago erregistratu dira, hau da, hiletik hilera % 2,1 gehiago, eta 21.181 langabe daude udalerrian.

Langabezia-tasa hazi egin da gizonen eta emakumeen artean, % 2,0 eta % 2,1, hurrenez hurren. Termino absolutuetan, hilabete amaieran 250 gizon langabe eta 176 emakumezko langabe daude.

16 eta 24 urte bitarteko gazteengan baino ez du langabeziak behera egin, gutxi izan bada ere (-% 0,6 eta 10 langabe gutxiago). 25 eta 44 urte bitartean ehunekoak gorakada handiena izan du, % 5,1 (+373). 45 urte eta gehiagoko adin-tartean, 63 langabe gehiago egon dira (% 0,5).

Sektoreen arabera, zerbitzuek 440 langabe gehiago dituzte (% 3,0), eraikuntzak 29 (% 2,4) eta industriak 28 (% 2,1). Lehen sektorean eta lehenengo lana bilatzen dutenen artean erregistratutako langabezia-tasak behera egin du (9 eta 62, hurrenez hurren).

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiriburu handien taldean (G-5) erregistratutako langabezia-tasa % 1,2 handitu da aurreko hilaren aldean. Bartzelonan izan da gorakadarik handiena: % 1,9. Sevillan txikiena da, % 0,5, eta Zaragozan uztailleko datua errepikatu da.

Euskal hiriburuen taldean (G-3) erregistratutako langabeziak % 2,3 egin du gora. Langabeziak gora egin du Donostian (% 4,0), Gasteizen (% 2,8) eta Iruñean (% 0,5).

Langabeziak gora egin du EAEn (% 4,0) eta hiru lurraldeetan: Gipuzkoan % 5,9, Bizkaian % 3,4 eta Araban %2,9.

### Afiliazioa

Bilboko enpresetan abuztuaren amaieran afiliatuak 192.922 dira, hau da, -% 1,3ko beherakada eta 2.486 enplegu gutxiago uztailaren aldean.

Araubide Orokorra 2.464 enplegu galdu ditu aurreko hilarekin konparatuta, eta Langile Autonomoen Araubide Berezia ere murriztu da, 41 afiliazio gutxiago baitaude. Etxekoa 7 afiliazioarekin igo da eta araubide berezietakoak (nekazaritza eta itsasoa) 12 afiliazioekin.

Sektoreka, zerbitzuek 2.583 afiliatu galdu dituzte eta eraikuntzak 45 (-% 1,5 eta -% 0,5, hurrenez hurren). Industriak 133 afiliatu irabazi ditu (% 1,5) eta lehen sektoreak 9 (% 3,6).

#### Erregistratutako langabeak

Δ Hilabete artekoa

<b>Abuztua</b>	<b>21.181 pertsona</b>
	% 2,1 ▲
Emakumeak	% 2,1 ▲
Gizonak	% 26,3 ▲

#### Benchmarkina

Δ Hilabete artekoa

<b>Bilbo</b>	% 2,1 ▲
<b>G-5</b>	% 1,2 ▲
<b>G-3</b>	% 2,3 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

#### Populazio afiliatua, araubideen arabera

Δ Hilabete artekoa

<b>Abuztua</b>	<b>192.922 pertsona</b>
	% 1,3 ▼
Araubide Orokorra	% 1,5 ▼
Autonomoak	% 0,2 ▼
Etxeko Sistema Berezia	% 0,1 ▲
Beste batzuk	% 1,7 ▲

Zerbitzuetan, eta datu absolutuetan, nabarmentzekoak dira hezkuntzan, informazio eta komunikazioetan eta bestelako zerbitzuetan izandako jaitsierak (2.875, 228 eta 177 gutxiago, hurrenez hurren). Gorakadarik nabarmenenak jarduera administratiboekin lotutako adarretan pilatzen dira, guztira 467 enplegu irabazi dituztenak, eta baita aisia- eta kultura-jardueretan ere, 156 enplegu lortu baitituzte (% 2,5 eta % 4,0, hurrenez hurren).

**Urte artean**, ordea, enpleguak % 2,0ko gorakada izan du, hau da, 3.855 afiliatu gehiago.

Araubide Orokorra % 2,5 handitu da eta berezietakoak —nekazaritza eta itsasoa—, % 0,7. Etxekoa (–% 3,1) eta autonomoena (–% 0,1) txikitu dira.

Sektoreka, zerbitzuetan 3.427 afiliatu gehiago daude (% 2,0), industrian 269 gehiago (% 3,0), eraikuntzan 138 gehiago (% 1,5) eta lehen sektorean 21 gehiago (% 8,8).

Zerbitzuetan nabarmentzekoak dira adar hauetan erregistratutako igoerak: Garraioa eta biltegiatzean; jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan; jarduera administratibo eta osagarrietan, eta hezkuntzan (733, 520, 497 eta 402 afiliatu gehiago, hurrenez hurren).

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiriburu nagusien multzoan (G-5) afiliazioak –% 0,1eko jaitsiera islatu du aurreko hilaren aldean. Taldeko hiriburuen joera ez da parekoa izan. Valentziak eta Bartzelonak behera jo dute (–% 0,6 y –% 0,4, hurrenez hurren), Madrilek enplegua mantendu du eta Sevillak eta Zaragozak afiliazio handiagoa dute (% 0,3 eta % 0,5, hurrenez hurren).

G-3ko hiriburuen taldean, afiliatuen kopurua, batera hartuta, –% 0,6 jaitsi da. Langabeziak behera egin du Gasteizen (–% 1,0) eta Donostian (–% 1,4). Iruñeak soilik handitu du afiliazioa, % 0,8.

EAEen, oro har, afiliatuak –% 0,6 jaitsi dira hilabete artean. Enplegua galdu da lurralde guztietan: Araban –% 0,9, Gipuzkoan –% 0,7 eta Bizkaian –% 0,4.

## Kontratuak

Abuztuan 9.209 kontratu formalizatu ziren Bilboko enpresetan, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino –% 2,7 eta 251 kontratu gutxiago. Urteik urtera murriztu egin dira gizonen egindako kontratuak (424 gutxiago), eta emakumeen egindakoak areagotu egin dira (173 gehiago).

Gazteenei egindako kontratuak igo dira, % 2,7 gehiago, hau da, 65 kontratu gehiago. Bestalde, –% 0,9 behera egin dute 25-44 urte arteko taldean (39 gutxiago) eta 45 urteko eta gehiagoko taldean –% 10,6 (277 gutxiago).

### Afiliatuak, jarduera-sektoreen arabera

Δ Hilabete artekoa

<b>Abuztua</b>	<b>192.922 pertsona</b>
	% 1,3 ▼
Zerbitzuak	% 1,5 ▼
Eraikuntza	% 0,5 ▼
Industria	% 1,5 ▲
Lehen sektorea	% 3,6 ▲

### Benchmarkina

Δ Hilabete artekoa

<b>Bilbo</b>	% 1,3 ▼
<b>G-5</b>	% 0,1 ▼
<b>G-3</b>	% 0,6 ▼

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

### Erregistraturiko kontratuak

Δ Urte artekoa

<b>Abuztua</b>	<b>9.209 kontratu</b>
	% 2,7 ▼
Emakumeak	% 3,7 ▲
Gizonak	% 9,0 ▼
Lehen sektorea	% 75,0 ▲
Industria	% 1,9 ▼
Eraikuntza	% 13,1 ▼
Zerbitzuak	% 2,4 ▼
Kontrataturiko pertsonak	% 1,5 ▲

Erregistratutako kontratuen % 48 dagozkie 25-44 urteko adin-tarteari (4.416 kontratu), % 26,7, berriz, gazteenei (2.456) eta gainerako % 25,4, ordea, 45 urte eta gehiagokoei (2.337).

Sektoreka, zerbitzuetan (-% 2,4 eta 207 kontratu gutxiago), eraikuntzan (-% 13,1 eta 36 kontratu gutxiago) eta industrian (-% 1,9 eta 11 kontratu gutxiago) kontratuak murriztu dira. Lehen sektorean baino ez dute gora egin (% 75 eta 3 gehiago). Zerbitzuetan, beherakada absolutu nabarmenenak erregistratu dira ostalaritzan (317 gutxiago), jarduera administratiboetan (200 gutxiago), aisialdiko jardueretan (92 gutxiago) eta informazio eta komunikazioan (87 gutxiago). Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuko jarduerak eta hezkuntza dira urte arteko igoera handienak izan dituzten adarrak (+219 eta +131, hurrenez hurren).

Abuztuko aldi baterako kontratuak kontratu guztien % 78,7 izan dira. Kontratatuak 7.509 izan dira. Hau da kontratu-txandakatzearen indizea: pertsona bakoitzeko 1,23 kontratu.

## MERKATARITZA

### Salmentak saltoki handietan eta elikagaien kateetan

Bizkaiko saltoki handietako eta elikadura-kateetako salmentek abuztuan % 0,1 egin dute gora urte batetik bestera, egutegi-efektua zuzenduta duten datuetan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 1,0 jaitsi dira salmentak.

Elikagaien salmentek -% 1,0 egin dute behera 2024ko abuztuarekin alderatuta, eta gainerako produktuen salmentek % 1,8ko gorakada izan dute. Bizkaiko saltoki handietan lanean ari direnen indizeak urte arteko % 1,5eko gorakada izan du.

Lurraldeka, saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentek behera egin dute Araban (-% 0,3) eta Gipuzkoan (-% 1,1). EAEn, orokorrean, -% 0,4 jaitsi dira.

#### Saltoki handiak Bizkaia

Δ Urte artekoa

<b>Abuztua</b>	<b>92,2</b>
<b>Salmenta-indizea</b>	<b>% 0,1 ▲</b>
- Elikadura	% 1,0 ▼
- Gainerako produktuak	% 1,8 ▲
<b>Landunak</b>	<b>% 1,5 ▲</b>

## EKONOMIA

### Bizkaiko BPGd

Bizkaiko barne-produktu gordinak % 2,2ko gorakada izan du urterik urte 2025eko bigarren hiruhilekoan. Euskal ekonomia osoari dagokionez, gora egin du, % 2,2.

Hiruhilekotik hiruhilekorako aldakuntzaren baldintzetan, Bizkaiko BPGd-a % 0,5 igo da eta, ondorioz, aurreko hiruhilekoan izandakoa baino txikiagoa

#### Barne Produktu Gordina Bizkaia

<b>II. hiruhilekoa</b>	
Δ Urte artekoa	% 2,2 ▲
Δ Hiruhileko artekoa	% 0,5 ▲
<b>Hiruhilekoko BPGd-a (milioi euroan)</b>	<b>13.033,1</b>

izan da (2025eko lehenengo hiruhilekoan +% 0,6). Bestalde, EAEn hazkundera % 0,5koa izan da.

Euskadi osorako, industria kenduta (-% 0,3), oro har, jarduera-sektoreek hiruhileko arteko bilakaera positiboa izan dute: lehen sektorea % 0,2 hazi da, eraikuntza % 1,3 eta zerbitzuak % 0,7.

## Zerbitzuak

Merkatuko beste zerbitzu batzuk sektoreko salmentak, urterik urte, % 1,5 igo dira bigarren hiruhilekoan. Aurreko hilabetearekin alderatuta, -% 1,4 jaitsi dira.

Jarduera-adarren arabera, bigarren hiruhilekoan ostalaritza % 6,1 hazi da, garraioa eta biltegiatzea % 3,4, jarduera administratiboak % 1,6 eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak % 0,1. Informazioa eta komunikazioa adarrak baina ez du behera egin, -% 4,2.

Landunak % 1,0 ugaritu dira urtetik urtera.

Lurraldeka, Araban % 5,3 egin dute gora, Gipuzkoan % 0,8 eta EAEn % 1,7.

## Etxebizitza

**Salerosketa:** Bilboko etxebizitza berri libreen transakzioen metro karratuko batez besteko prezioa 4.753,5 eurokoa da, Eusko Jaurlaritzak urteko bigarren hiruhilekoari lotuta egin duen Etxebizitzen Salerosketaren Estatistikaren arabera. Horrek aurreko hiruhilekoan baino % 15,0 garestiagoa izatea dakar, eta urte arteko terminoetan % 18,0 garestiagoa.

Erabilitako etxebizitzen metro koadroko batez besteko prezioak % 9,6 egin du behera 2024ko laugarren hiruhilekoaren aldean, eta 3.439,0 eurokoa da. Urte arteko aldakuntza positiboa da, % 14,6koa.

Bilboko etxebizitza libreen salerosketa-transakzioen batez besteko prezio osoa, urteko bigarren hiruhilekoan, 496.993 euro izan da, eta etxebizitza erabiliarena, 294.568 euro.

**Alokairua:** Argitaratutako azken datuen arabera, etxebizitza libreetako alokairu-kontratuen batez besteko hilabeteko errenta hilabeteko 933,9 eurora iritsi da 2024ko laugarren hiruhilekoan, aurreko hilabetean baino -% 1,2 txikiagoa eta, urte arteari dagokionez, % 7,3 handiagoa.

### Merkatuko zerbitzuen salmentak. Bizkaia

Δ Urte artekoa

II. hiruhilekoa 127,1

Salmenta-indizea % 1,5 ▲

Landunak % 1,0 ▲

### Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (m<sup>2</sup>)

2025eko II. hiruhilekoa 4.753,5 €/m<sup>2</sup>

Δ Hiruhileko artekoa % 15,0 ▲

Δ Urte artekoa % 18,0 ▲

### Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (m<sup>2</sup>)

2025eko II. hiruhilekoa 3.439,0 €/m<sup>2</sup>

Δ Hiruhileko artekoa % 9,6 ▲

Δ Urte artekoa % 14,6 ▲

### Etxebizitzen alokairuaren prezioa (€/hilabete)

2024ko IV. hiruhilekoa 933,9 €/hilabete

Δ Hiruhileko artekoa % 1,2 ▼

Δ Urte artekoa % 7,3 ▲

## TURISMOA

Bilboko hotel-establezimenduetan 274.001 ostatu-gau erregistratu dira abuztuan, hau da, % 5,1eko hazkundera egon da urtetik urtera (123.376 ostatu-gau gehiago).

Bidaiarien sarrerak ere gora egin du % 4,1. Urterik urtera estatuko bidaiarien kopurua -% 1,2 murriztu da eta abuztuan hiria bisitatu zuten bidaiaren % 37,2 dira. Bidaiarien gainontzeko % 62,8 atzerritarrak dira eta, gainera, aurreko urteko hilabete berean Bilbon lo egin zuten bidaiariak baino % 7,5 gehiago dira.

Hiriko hoteletan ostatu hartutako estatuko bidaiariei dagokienez, Madrilgo Erkidegokoak izan dira ugarienak (% 23,7), gero Kataluniakoak (% 16,5), Valentziako Erkidegokoak (% 10,7), Andaluziakoak (% 10,5) eta EAekoak (% 10,0). Atzerriko turismoari dagokionez, jatorri hauetatik datozenak izan dira ugarienak: Frantzia (% 15,9), Italia (% 14,4), Alemania (% 9,5), Erresuma Batua (% 8,5), AEB (% 7,8) eta Herbehereak (% 6,9).

Batez besteko egonaldia 2,10 egunekoa izan da, iazkoa baino pixka bat handiagoa (2,08).

Hotel establezimenduek emandako errentagarritasun-datuen arabera, libre dagoen logelako tarifa eta batez besteko diru-sarrera handitu dira, 144,6 eta 126,2 euro, hurrenez hurren.

### Aste Nagusia 2025: Abuztuaren 16tik 24ra – 8 gau

Hoteletako ostatu-gauak,	80.443 (% 6,0 urte artean)
Bidaiarien sarrerak,	37.746 (% 4,7 urte artean)
Okupazio-maila, plazen arabera,	% 83,6

**Apartamentu turistikoaren establezimenduek** 18.975 sarrera erregistratu dituzte guztira abuztuan, hau da, % 20,0 gehiago eta 39.422 gaualdi gehiago, eta 2024ko abuztuan baino % 6,8 gehiago.

**Oro har, enpresa-establezimenduetan, hotelak eta apartamentu turistikoak batuta,** abuztuan 149.659 sarrera eta 313.423 gaualdi izan dira Bilbon (urte batetik bestera % 5,9 eta % 5,3 gehiago, kasu bakoitzean).

**Benchmarkina.** Euskal hiriburuen multzoan (G-3), hoteletako ostatu-gauen bilakaera negatiboa izan da, -% 3,4 jaitsi da urte batetik bestera. Behera egin dute Gasteizen (-% 9,1) eta Donostian (-% 3,0). Iruñean baino ez dira handitu (+% 2,4). Urte batetik bestera gora egin dute EAEn (% 1,2), Bizkaian (% 4,4) Gipuzkoan (% 0,6). Araban, ostatu-gau gutxiago egon dira (-% 7,2).

Bestalde, estatuko hiriburu nagusietan (G-5) ostatu-gauak % 1,5eko gorakada izan dute. Ostatu-gauak gora egin dute taldeko hiriburu guztietan, Sevillan (-% 2,3) eta Valentzian (-% 0,2) izan ezik. Madrilen egon da gorakadarik altuena (% 4,0).

### Ostatu-gauak

Δ Urte artekoa

<b>Abuztua</b>	274.001 ostatu-gau	% 5,1 ▲
Hiru izar eta gehiagoko hotelak	% 3,7 ▲	
Gainerako hotelak eta ostatuak	% 9,8 ▲	

### Bidaiarien sarrera

Δ Urte artekoa

<b>Abuztua</b>	130.684 sarrera	% 4,1 ▲
Nazionalak	% 1,2 ▼	
Atzerritarrak	% 7,5 ▲	

### Batez besteko egonaldia

Δ Urte artekoa

<b>Abuztua</b>	2,10 ostatu-gau/bidaiari	% 0,96 ▲
----------------	--------------------------	----------

### Sektorearen errentagarritasun-adierazleak

Δ Urte artekoa

Logela bakoitzeko eguneko batez besteko tarifa (€)	% 4,8 ▲
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	% 3,8 ▲

### Apartamentu turistikoak

Δ Urte artekoa

<b>Uztaila</b>		
<b>Ostatu-gauak</b>	39.422 ostatu-gau	% 6,8 ▲
<b>Bidaiarien sarrerak</b>	18.975 sarrera	% 20,0 ▲

Apartamentu turistikoak: "gutxienez logela, bainugela, egongela-jangela eta sukaldearekin osatutako ostatu-unitateez osatutako establezimenduak, multzo independente gisa eskainita eta enpresa-ustiapeneko unitatearen printzipioaren arabera kudeatuta, modu profesionalen eta ohikoan aldi baterako ostatua ematera bideratzen direnak, egoitza aldatu gabe". 198/2013 DEKRETUA, apirilaren 16koa, apartamentu turistikoak arautzen dituena. (Ez dira sartzen erabilera turistikorako etxebizitza partikularrak).

### Benchmarkina

Δ Urte artekoa

<b>Bilbo</b>	% 5,1 ▲
<b>G-5</b>	% 1,5 ▲
<b>G-3</b>	% 3,4 ▼

G-5: Madril,artzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

## GARRAIOA

### Aireko garraioa

Bilboko aireportuak 679.086 bidaiari izan ditu abuztuan (iritsierak eta irteerak kontuan hartuta), hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 1,5 eta 10.272 bidaiari gehiago. Emaidza horiekin, gainera, abuztuko daturik onena lortu du, funtzionatzen hasi zuenetik.

Merkataritza-eragiketetan, hegaldi nazionaletan bidaiari kopurua murriztu da urtetik urtera, 23.043 bidaiari gutxiago, -% 6,4. Nazioarteko bidaiarien kopurua % 10,6 handitu da, 33.054 bidaiari gehiagorekin.

Hilabetean egondako hegaldi kopurua % 3,8 hazi da, guztira, iritsierak eta irteerak kontuan hartuta, 4.943 izan dira. Era berean, garraiatutako salerosgai kopurua ere handitu da (% 4,3).

**Urtarriletik abuztura 4.665.275 bidaiari metatu dira**, aurreko urteko aldi berean baino % 3,3 gehiago, hau da, 150.307 bidaiari gehiago.

**Benchmarkina.** Espainiako bost hiri nagusiei dagokienez (G-5), urtetik urtera % 3,8ko igoera kontabilizatu da bidaiari kopuruan. Taldeko aireportu guztietan bidaiarien kopuruak gora egin du. Valentzian izan da hazkunderik nabarmenena (% 5,5) eta Sevillan baxuena (% 1,3).

G-3 multzoan, bidaiarien trafikoari begira, % 1,6 handitu da, urtetik urtera. Iruñean % 8,8 handitu da eta Gasteizen % 1,2). Donostian behera egin du (-% 1,9).

### Portuko garraioa

Bilboko Portuak 2,7 milioi tonako trafikoa izan zuen abuztuan, hau da, % 11,1 gutxiago aurreko urteko hilabete berberarekin alderatuta.

Solteko salgai likidoen trafikoa (petrolio eta gasa, funtsean) portuan abuztuan kudeatutako salgaien % 62,5 izan da, eta % 23,6ko igoera izan du. Solteko gaien trafikoa (zerealak, soja eta ikatza, besteak beste) % 3,8 hazi da eta salgai orokorra -% 7,5 jaitsi da.

Abuztuan 14 itsas bidaia erregistratu dira.

**Metatutako datuari dagokionez**, urtarriletik abuztura bitartean, 21 milioi tona lortu dira portuko trafikoan, aurreko urteko aldi berean baino -% 10,3 gutxiago.

#### Aireko garraioa

Δ Urte artekoa

<b>Abuztua</b>	679.086 bidaiari
	% 1,5 ▲
Nazionalak	% 6,4 ▼
Nazioartekoak	% 10,6 ▲
<b>Salgaiak (kg)</b>	% 4,3 ▲
<b>Hegaldiak</b>	% 3,8 ▲

#### Benchmarkina

Δ Urte artekoa

<b>Bilbo</b>	% 1,5 ▲
<b>G-5</b>	% 3,8 ▲
<b>G-3</b>	% 1,0 ▲

G-5: Madril, Bartzelona, Valentzia, Sevilla eta Zaragoza  
G-3: Donostia, Gasteiz eta Iruñea

#### Itsas garraioa Abuztua

Δ Urte artekoa

<b>Portuko trafikoa</b>	2,7 milioi tona
	% 11,1 ▲
<b>Bidaiariak garraiatzea</b>	56.792 bidaiari
	16,1% ▲
<b>Itsas bidaiariak (kop.)</b>	30.241 itsas bidaiari
	36,6 % ▲

## ADIERAZLEEN TAULA


	Azken datua	Urtetik urterako aldakuntza (%) *aurreko aldia	Azken datuaren data
<b>Lan-merkatua</b>			
Erregistratutako langabeak (kop.)	21.181	2,1*	2025eko abuztua
Afiliatutako biztanleak (kop.)**	192.922	-1,3*	2025eko abuztua
Erregistratutako kontratuak (kop.)**	9.209	-2,7	2025eko abuztua
Biztanleria aktiboa (milakotan)	190,8	0,3*	2025eko II. HH
Biztanleria landuna (milakotan)**	177,9	5,9*	2025eko II. HH
Langabeak (milakotan)	12,9	-42,2*	2025eko II. HH
BAIko langabezia-tasa (%)	6,75	-4,97 p.p.*	2025eko II. HH
<b>Merkataritza</b>			
Kontsumoko prezioen indizea (KPI)***	119,6	0,0*	2025eko abuztua
Afiliatuak**	20.281	-0,3*	2025eko abuztua
Txikizkako merkataritzako salmentak (indizea)***	113,1	3,5	2025eko II. HH
Saltoki handietako eta elikagaien kateetako salmentak	92,2	0,1	2025eko abuztua
<b>Turismoa</b>			
Bidaarien sarrerak hoteletan	130.684	4,1	2025eko abuztua
Hotel-gauak	274.001	5,1	2025eko abuztua
Batez besteko egonaldia (ostatu-gauak/bidaia-ria)	2,10	0,96	2025eko abuztua
Hoteletako okupazio-maila (%)	82,4	0,7p.p.	2025eko abuztua
Diru-sarrerak libre dagoen logelako (€)	126,24	3,8	2025eko abuztua
Bidaarien sarrerak apartamentuetan	18.975	20,0	2025eko abuztua
Ostatu-gauak apartamentuetan	39.422	6,8	2025eko abuztua
Batez besteko egonaldia apartamentuetan (ostatu-gauak/bidaia-ria)	2,08	-10,7	2025eko abuztua
<b>Ekonomia eta enpresa</b>			
Bizkaiko BPGd	107,3	0,5*	2025eko II. HH
Industria-produkzioa (indizea)***	110,1	2,3	2025eko uztaila
Merkataritza-sozietate berriak	491	8,6	2025eko urt.-eka.
Zerbitzuetako salmentak (indizea)***	127,1	1,5	2025eko II. HH
Etxebizitza berriaren batez besteko prezioa (€/m <sup>2</sup> )	4.753,5	15,0*	2025eko II. HH
Etxebizitza erabiliaren batez besteko prezioa (€/m <sup>2</sup> )	3.439,0	9,6*	2025eko II. HH
Etxebizitzen alokairuaren prezioa (€/hilabete)	933,9	-1,2*	2025eko IV. HH
<b>Garraioa</b>			
Bidaarien aire bidezko garraioa	679.086	1,5	Abu. 2025
Hegaldiak	4.943	3,8	2025eko abuztua
Salgaien itsas garraioa (milioi tonatan)	2,7	11,1	2025eko abuztua

\* Aldakuntza-tasa aurreko epearen aldean. \*\* Bilboko enpresetan. \*\*\* Bizkaia-ri dagokiona.


Iturriak: Geuk egina, Eustaten, ElNren, Inklusio, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren, Lanbideren, EEZPren, Merkataritza Erregistroaren, AENAREN, Estatuko Portuen, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko Garraio Partzuergoaren datuetan oinarrituta.

GRAFIKOAK


Erregistratutako langabezia




Afiliatuak




Hotel-gauak



Aireportuko bidaiariak



Bizkaiko BPGd



Salmentak saltoki handietan eta elikagaien kateetan

